

RAKASLEAK. DIAGNOSTIKOA**10.4. TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA.**

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu noraino zauden ados, 1etik (ez bazaude batere ados) 4ra (erabat ados bazaude).

GATAZKAK MODU BAKETSUAN ERALDATZEA , HEZKIDETZAKO BIZIKIDETZARAKO PROIEKTUEN BIDEZ, IKASTETXEAN.				
19. Ikastetxean ez da modu jarraituan agresibitate-adierazpenik egiten neska-mutilen artean (irainak, mehatxuak, eraso fisikoak ...).	1	2	3	4
20. Ikastetxean ez da onartzen mutilen edo nesken oldarkortasuna adierazpen bakar batean ere.	1	2	3	4
21. Oldarkortasun-adierazpenen aurrean irakasleen jarrera bera da, adierazpenok mutilengandik zein neskengandik etorrita ere.	1	2	3	4
22. Ikastetxean, Tutoretza Planaren bidez lantzen dira ikasleen arteko gatazken hausnarketa eta konponbidea, eta sentsibilitate berezia dute egon daitezkeen genero-gatazken aurrean.	1	2	3	4
23. Ikastetxean, ikasgai desberdinetan ikasleen arteko gatazken hausnarketa eta konponbidea lantzen da, eta sentsibilitate berezia dute egon daitezkeen genero-gatazken aurrean.	1	2	3	4
24. Gatazka bat dagoenean, genero ikuspegia hartzen da kontuan.	1	2	3	4
25. Klasekide batek hitz egiten duenean, ez da iruzkin deskalifikatzaile sexistarik egiten.	1	2	3	4
26. Klasekide batek hitz egiten duenean, ez da onartzen iruzkin deskalifikatzaile sexistarik.	1	2	3	4
27. Mutilak eta neskek elkarren artean ondo erlazionatzen dira, elkarrengandik hurbil esertzen dira, adiskidetasunaren eta kidetasunaren arabera, eta ez da sexuen arteko tentsiorik ikusten.	1	2	3	4
28. Ikastetxean ez dira neska-mutilen artean estereotipoak eta/edo eskubide- eta betebeharrak desberdintasunak agertzen.	1	2	3	4
29. Oro har, edozein mailatako irakasleek mutilen eta nesken komunikazio-estiloa (irakasleena) irakatsi eta saritzen dute, batzuek besteen aldean abantailak izatea saihestuz (gehiagotan eta denbora gehiagoz hitz egitea, oihu gehiago egitea).	1	2	3	4
30. Irakasleek (edozein mailatakoak) ez dute iruzkin deskalifikatzaile sexistarik egiten ikasle bati buruz hitz egiten duenean.	1	2	3	4
31. Ikasleek (edozein sexutakoak) irakasleengana jotzen dutenean, ez dute iruzkin deskalifikatzaile sexistarik egiten.	1	2	3	4
32. Irakasleen eta ikasleen arteko harremana egokia da une oro, pertsonen sexua kontuan hartu gabe, eta ez da sexuen arteko tentsiorik ikusten.	1	2	3	4
33. Irakasleek ikasleekiko harremanetan ez dituzte erabiltzen genero-estereotipoak dakartzaten terminoak.	1	2	3	4
34. Uste dut ikasleek desberdin jokatzeko dutela irakasleekin, gizon edo emakume izate hutsagatik.	1	2	3	4

GATAZKAK MODU BAKETSUAN ERALDATZEA , HEZKIDETZAKO BIZIKIDETZARAKO PROIEKTUEN BIDEZ, IKASGELAN				
35. Ikastetxeko ikasgela eta gainerako espazioak genero-bereizketarik gabe erabiltzen ditut.	1	2	3	4
36. Egunero jasotzen dituzten zaintzak aitortzen laguntzen diet ikasleei.	1	2	3	4
37. Ikasgela atsegina eta zaintza-espazioak eraikitzen laguntzen dut, non haurrek eta neska-mutilek zaintza horretan laguntzen duten.	1	2	3	4
38. "Enpatia" kontzeptua lantzen dut ikasgelan, eta praktikan jartzen dugu ikasleekin, bereziki, pertsona ahulenekin.	1	2	3	4
39. Gure emozioak, gure erreakzioak eta gatazken eta besteen gatazken aurrean ditugun estrategiak ezagutzen eta izendatzen laguntzen diet ikasleei.	1	2	3	4
40. Ezetz esaten laguntzen diet ikasleei, eta beste pertsona batzuen ezetza errespetatzen ikasten ere bai.	1	2	3	4
41. Gustatzen zaizkigun eta gustatzen ez zaizkigun pertsonen jarrerak ikusarazten laguntzen diet ikasleei.	1	2	3	4
42. Gatazkak zer eragiten digun aztertzen laguntzen diet ikasleei, baita gatazka horiek konpontzeko ekintza alternatiboak ere.	1	2	3	4
43. Irtenbide baketsuak bilatzen laguntzen diet ikasleei, eztabaidatzen, hitz egiten, entzuten ikasten, geure burua talde gisa eta banaka zaintzen, gure emozioak eta haien aurrean ditugun erreakzioak ezagutzen.	1	2	3	4
44. Generoa dela-eta izaten den eskola-jazarpenari buruz gogoeta egiten dut ikasleekin, hura identifikatzeko eta ikasgela eta ikastetxea indarkeriarik gabeko gune bihurtzeko.	1	2	3	4
45. Ikasgelan neska eta mutil izateko berdintasunezko ereduak eraikitzea lantzen dut, honako hauek erabiliz: filmak, eleberriak, bideo-jokoak, abestiak, eta abar.	1	2	3	4
46. Gatazken eraldaketa etikoaren inguruan dituzten jarrerei eta ideiei dagokienez nork bere burua ebaluatzen laguntzen diet ikasleei, berdintasunezko identitatearen eraikuntzan aurrera egiteko.	1	2	3	4

Talde txikian item bakoitzari emandako erantzunak adosten saiatuko gara, eta argudiatzen eta akordioak lortzen ahaleginduko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertu, eta taula honetan sailkatu:

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA		
	Zenbakiak	Zergatiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten indizeak).		

Gure ikastetxean hautemandako indarguneak eta ahuleziak ikusita, epe laburrean zer hobekuntza-elementu egin daitezkeen zehaztuko dugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, hobetzeko behar horiek formulatuko ditugu, datozen ikasturteetan aurrera eraman ahal izango ditugun helburu gisa.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	
HOBETZEKO BEHARRAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK